

# Txillardegiren oroimena, edo alderdi interesak herriaren gainetik?

**Fito Rodriguez**  
Idazlea

**U**rtarrilaren 14an euskal kulturarako funtsezkoa izan den Txillardegiren heriotzaren V. urteurrena beteko da eta, aurreko urtetan bezala, honako galdere plazaratu nahi dut:

Zergatik ez zaio publikoki aitortzen Txillardegiri beste hainbesteri eman zaion esker onik?

Donostian, esaterako, euskalgintzan ezagunak izan diren Karlos Santamaria, Ignacio Barriola, Imanol Lartzabal edo El-bira Zipitria izenak honetzeko paisaian txertatuak egon arren Txillardegiren izena ez da inon ageri. Baina beste norbaitekin erkatzekotan, kasu paradigmaticoa da Koldo Mitxelenaekin alderatzea.

Izan ere, Mitxelena goretzia izan da oso eta bere izena daramaten dozenaka erai-kin, ikastetxe edota sariketak egon badaude ere ez dugu ezagutzen Txillardegiren izenik daukanik, duela gutxi Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateak izendatu berri duen aretoa izan ezlik. Bistan da biek ez dutela izan gizarte edo Aka-

demia onarpen berdina. Halere, Literaturaren esparruan bederen, argi dago Txillardegiri Mitxelena baino idazle eragingarriagoa izan dela. Halaber, gogamen filosofikoaz, ezaguna da Txillardegiren hasierako jite existenzialista, gero estrukturalismotik generatibismora pasa zena.

Mitxelena, aldiz, estrukturalismoan geratu zela esan daiteke.

Politikari dagokionez, bion abertzaleztasuna begi bistakoa izan arren, haien arteko ezberdintasunak ere nabari izan ziren 1977tik aurrera batik bat: «Hor al dago goian zabalduko galderearen erantzuna?»

Hala Glotopolitikan nola Soziolinguistikan, benetako etena aurkituko dugu bion artean.

Mitxelena, halere, argi eta garbi miretsi zuen publikoki Txillardegiren ekarpen literarioa, baina ez zen berdina gertatu politika arloan. Izan ere, Txillardegik EKIN taldea sortzea erabaki zuenetik EAJrekin apurtzea deliberatu zuen; Mitxelena, ordea, progresista izan arren, jeltzalea izan zen EAra joan arte (1986). Beraz, aranimoren hautu etnikotik urrun, euskara jarri zuten EKINekoek ardatz.

Mitxelena filologoa gramatika arauemailea nahi zuen: euskara batuaren aldeko Euskaltzaindia. Txillardegik soziolinguistik, ordea, glotopolitika argitzearen alde

lan egin zuen eta Normaltzaindia nahiago zuen.

Halere, 1977an, Txillardegik erbestetik etorri zenean, abertzaleen arteko lotura eta elkarlana erraztu nahian ibili zen. Trantsizioa delakoaren hasiera zen eta ez du ematen, horretan behintzat, Mitxelenaaren laguntza izan zuenik eta urteetako adiskidantza nahiz elkarren arteko miresmena bertan behera zapuztuta geratu ziren... betiko?

Mitxelena lehenetsi zuen peskiza akademikoa eta euskararen onarpen nahiz gorespen instituzionala. Txillardegik, euskara erabilia izan zuen kezka bide. Aldiz, Mitxelena, nolabait esanda, erabili aurretik hizkuntza prestatu eta egokitu behar zela uste zuen.

Txillardegik ez zuen hori ametitu nahi. Alderantziz, menpekotasuna salatuz, uste hori euskaldunoi sinetsarazi digutenaren ondorioa dela zioen eta, bere aburuz, uste ustel hori barneratu izan badugu ere konplexu horretatik irtekeko premia dago. Egin beharra dagoena euskararen ahultasunak eta indargunek ongi ezagutzea da (soziolinguistika aldarri) eta, haien arabera, berak zioskuneez: «euskara gaitu, batu eta osatu».

Txillardegik hizkuntza literarioaren normalkuntzan ezinbesteko lana egin zue-

la frogatua dago oso (ikus Joan Mari Torrealda, Jakin 204. *Batasunaren bidea* urratzen. *Txillardegiren erogintza praktikoa* 2014) baina, egun, ez dauka Koldo Mitxelena izenari lotuta bezala, liburutegi, kulturune, ikastetxe, plaza eta kale edo saririk.

Dena den, Wikipediara jo ezkerre, Txillardegik hizkuntza askotan agertzen da (nik kontsultatutako hamasei hizkuntzetan) eta Mitxelena buruzko sarrerak, berriak, askoz gutxiago dira (euskaraz eta gaztelaniaz ditugu garrantzikoekin). Bistan da biak egon zirela preso behin baino gehiagotan, Mitxelena heriotza zigorra ezarri zioten gainera, baina Txillardegik tirokatua izan zen Josu Muguruza hil zuten atentatuan Espainiako Senatuan senataria zela, eta ez dute inoiz biktimitzat hartu.

Honenbestez, Mitxelena onartua bezain aitortua den bitartean, Txillardegik aldarrikatzeko dugu oraindik.

Ezin dugu hemen fikzio handirik egin baina, 1986tik aurrera, Mitxelena EAJ utzi eta EAn sartu zenez, egun, Carlos Garaikoa txearrekin batera, EH Bildun Txillardegirekin bat eginik egon zitekeela pentsa daiteke gauzak gehiegi bortxatu gabe.

Dena dela, ez dut uste, horregatik, Mitxelena emandako aitortza ukatuko diotetik.

# Hezkidetza LGTBQfobiaren aurka

**Ana Perez eta Kepa Yecora**  
Steilas

**U**kazina da azken urteotan aniztasun afektibo sexual eta genero aniztasunarekiko jarrera aldatuta izan dela. Gure inguru hurbilean, esaterako, bisibilizazioan eta lege-berdintasunean aurrerapen itzelak izaten ari dira. Baina hori horrela izanik ere, badugu zeregin handia: atera berri diren datuen arabera, gora egin du salatzen diren genero indarkeriagatik kasuen kopuruak, bai eta sexu eta genero aniztasunaren aurkako gorroto delitu kasuek ere.

Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan bazterkeriaren aurkako lege bana onetsi zen 2009an eta 2012an, hurrenez hurren. Lege horien ezarpenean eta haitan aipatzen diren helburuetan maila ezberdinetan izan da garapena, eta, asmo ederrak agerturik ere, errealitateak bestelako egoera erakusten du. Momentu hone-

tan, Nafarroako Lege Antidiskriminaziale berria lantzen ari da Parlamentuan. Aurreko ordezkatzea du helburu, ikusitako gabeziak jaso eta esparru guzfitara hedatuz berdintasun aukera.

Baina Hego Euskal Herria ez da irila bat berdintasunaren aldeko borroka honetan. Helburu komun bat azaltzen da: LGTBI diren eta ez diren ikasle guztien aniztasunak baloratzea, bizitza antziz bisibilizazio eskubidea bermatzea eta bazterkeriarik gabeko gizarteantza bizitzea.

Baina berdintasunaren aldeko ekimenak hartzen ari diren tamaina ikusita, bada oldartu denik. Oldartu ez ezik, eskolara kontrako propaganda bidaltzea aurreratu da talde ultrakatoliko bat. Doktrinamendua egitea egotzi digute, genero aniztasunaren aldeko legeak pertsoak direla esan izan dute, kontzientzia askatasunaren zapaltzaileak omen gara... Ikastetxe publiko zein pribatuak iragoritu dute euren kontrako jarrera irmoa, eta, horretarako, idatzi bat proposatu dute Hezkuntza Sailera igortzeko eta euren seme-alaben eskolan aniztasun sexuala eta LGTBI ereduak baztertzeko ikastetxearen jardueret-

tatik. Espainiako Konstituzioa ere aitatzen dute gurasoen konbentzimendu erlijioso eta etikoa defendatzeko. Penagarri. Baina ezin dugu txikietsi egitasmo hori, ez baita soltea, eta euren sokako komunikabideen laguntza izanen dute. Eliza katolikoaren sektore bat ere buru-belarri ari da. Horren adibide garbia ditugu Cañizares apezpikuaren adierazpenak: «Haurrak genero ideologian heztea maltzurkeria da», eta «horren kontra ekin behar du gizarteak, ez gelditu besoak gurutzaturik». Badituzte bitartekoak eta aukerak. Gurutzada eskuindar eta atzerako hinek bultzada izanen du datoen hilabetetan, eta gure erantzuna egoki egituratu behar dugu.

Hezkidetza dugu helburu eta bitarteko, ikasleak hezi nahi baititugu orain arte irizpide existet jarraituz gizon eta emakumei egokitutako rol, balio eta jarrerak hartu gabe, estereotipo tradizionalak alde batera utziz.

Iruñeko Udalak eta Nafarroako Parlamentuak eskolotara bidalitako egitasmo atzerakoaren aurkako ebazpen bana onetsi dute. Ongi dago Parlamentuaren interpellazioa Hezkuntza Departamentuak

neurriak har ditzan ikastetxeetan genero eta aniztasun afektibo-sexualaren aurkako materialak kontuan ez hartzeko. Ongi etorri dira. Baina instituzioetatik, Hezkuntza Departamentuetatik, bestelako erantzuna nahi dugu. Hezkidetza, aniztasunaren tratuera egokia ildo estrategikoa (benetan) bada, bitarteko egokiak jarri behar dira, eta irakaskuntzako langileen derrigorrezko formakuntzatik hasi behar dugu. Kontzientziazioa eta formazioa. Hitzetatik haratago, erasoei egoki erantzuteko. Ikastetxeetan ere mezu argia jaso behar dute aniztasuna eta errespetua bermaturik dagoela ziurta dezaten. Legeak hala jasotzen du, eta Sailak hori bermatu behar du.

Guk inoiz baino konbentzimendu handiagoz segituko dugu lanetako egiteko materialak sortzen eta ikastetxetara bidaltzen. Aurtengo azaroaren 25ean ikastetxetara bidali genuen unitate didaktikoaren leloak ongi baino hobeki islatzen baitu zer nahi dugun emakumeok eta LGTBI garenok: «Askea izan nahi dut, ez ausart». Eta bide horretan ez dugu inoren baimenik behar, baina bai, berriz, hezkuntza hezkidetzaileren beharra.